

AGUSTIN ANSA



dibujos
acuarelas

ERAKUSKETA
EXPOSICION

Ikultur Aretoa
Errasate, 12 • Donostia
Sala de Cultura

Abril 1986 Apirila

CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL



AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA

PORTADA: PATACHES - 1982
30 x 30 cms. Acuarela sobre estucado

© Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián
Aurrezki Kutxa Munizipala
Depósito legal : SS 162/86
Núm. Reg. Edit.: 661/68

Editado por
Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones (RSBAP)
Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal

Impreso por
Imprenta Echeverría
Easo, 47 - San Sebastián

Fotografías
Estudio Pascual

SEBASTIAN. CAJA DE AHO
PROS MUNIC. PAL DE SAN



EUSKARAPENA
TRADUCTORES

TXILLARDEGI
GOTXON NAZABAL

IDAZLE LANKIDEAK
COLABORADORES LITERARIOS

Dr. IÑAKI BARRIOLA
MIGUEL PELAY OROZCO
AGUSTIN ANSA
JOAQUIN DE ITURBIDE

AURKIBIDEA - INDICE

	Página
Prólogo. Ignacio M ^a Barriola.....	21
Agustín Ansa Múgica-Esbozo autobiográfico.....	25
Nuestro diálogo. Miguel Pelay Orozco.....	29
Agustín Ansa. Médico-pintor o pintor-médico por Joaquin de Iturbide.....	45

INDICE DE ILUSTRACIONES

AGUAZO

Puerto de pescadores. S. Sebastián.....	101
---	-----

ACUARELAS

Ansó.....	103
Ansotarra.....	105
El Cortijo.....	107
El Ebro en el Cortijo.....	109
Plaza de Guipúzcoa.....	111
Caserío. Urnieta.....	113
Tarazona.....	115
Puente de Carabel. Hernani.....	117
Otoño en los montes de Aya.....	119
Caserío Pastain.....	121
Paisaje de Igara.....	123
Parque de Puyo.....	125
Hayas.....	127
Hinojosa del Valle.....	129
Regata de Domico.....	131
Pinos de Bacares. Madrid.....	133
Paisaje de Igueldo.....	135

El Arga. Pamplona.....	137
Tiermas.....	139
Aldunate.....	141
Chopos. Biniés.....	143
Paisaje de Bacares. Madrid.....	145
Plaza de Monreal.....	147
Puente de Alegría de Oria.....	149
Torres del Río.....	151
TEMPERA	
Cartel de la Feria de Arte.....	153
DIBUJOS - Pluma estilográfica	
Interior. Echegarate.....	155
Plaza de Guipúzcoa.....	157
Portada del libro «San Sebastián».....	159
San Vicente.....	161
Claustro de San Telmo.....	163
Las Ramblas. Barcelona.....	165
Derribos en San Felipe. Madrid.....	167
Lequeitio.....	169
Faro de Higuera.....	171
Lápiz negro:	
Figura.....	173
Bolígrafo:	
Figura.....	175
Tinta china y palillo:	
Cuenca. Lluvia en San Pedro.....	177
Toledo.....	179
Albarracín.....	181
Pamplona. San Nicolás.....	183
Lequeitio. Café de la Marina.....	185

Plaza de Estella.....	187
Fregenal.....	189
Yanci.....	191
Miraconcha.....	193
Arboles. Sol de invierno.....	195
Ramas secas.....	197

ACUARELAS SOBRE ESTUCADO

El molinillo.....	199
Sare.....	201
Azucenas.....	203
Poza de la Sal.....	205
Anémonas.....	207
Caseríos. Yanci.....	209
Flores al sol.....	211
Yanci.....	213
«Mr. Pickwick» y «SamWeller». Collage.....	215
Yanci. La Villa.....	217
Isaba.....	219

Ausardiaz bada ere, **Agustin Ansaren** obrari egin zaion aurkezpenari, neronen orrialdetxo bat erantsiko diot. Baina bide-nabar, eta eskaini zaidan aukera hau berriz gertatuko ez zaidala sinetsita, neure mirespena agertu nahi nuke: bai osagileari eta bai artistari.

Hogei-ta-hamarkadaren haseran, biok Manteo-ko eritegian ari ginela-ta, harremanetan hasi ginen; eta berehala bihurtu zen hura adiskidetasun sakon: geure eginkizunen elkar-osakidetzaz ez-ezik, berak bere betebeharretan erasten zituen seriotasuna eta jakinduariagatik ere.

Geroztik urte pilo bat joan da; eta beti ere ekintza-gai izan duen fisiologiaren alorrean, aldakuntza gaitzak gertatu dira. Urte horietan barrena, lekuko ona izan da Ansa Doktorea: behinola-ko urre-gazkinen nola-halako eraginaz geroztik, eta gaur egungo anti-bioterapiaraino, bilakaera harrigarria izan da biriketako eritasun beldurgarrien aurka; hasi lehendabiziko kirurgi-saio apaletatik, eta oraingo ebaketa korapilotsuetaraino. Noiz-nahi ere, bai bere jakintzaren aldetik eta bai bere saiaketa-mailarenetik, espezialitateko gipuzkoar puntuzkoen artean egon da beti. Baina denboraren isuri etengaitzak, bere profesio-lanen murriztera eraman du; eta honek bere bigarren barne-deiari ordu gehiago eskaini ahal izatera eraman du.

Barne-deia izan baita, bai, Agustinentzat, eta oraindik ere horixe baita margolaritza. Artearekiko dei fin horrek, beti aurkitu du beregan oihartzun jatorra. Burutazio iheskorra, kantoin bitxi baten ikuspena, kaletarteko txokoa, ikuspegi orokor eta erakargarria, berehala mamitzen ziren apunte-karnet hartan, lauzpabost zirriborro gisa bederen. Eta geroago, bere lanarteetan, hazi eta garatu egiten zen, eguneroko ikusteak lardaskatu eta balio-gabetu egiten duen hori, txolarte gunee bihurtzen zen, edo-ta edertasunen bilako ibilketa.

Kalez kale ibiltze bihozkor era miatzaile horren fruitu ugaria dira Donostiari eskainitako bi obrak —horietako bata Donostiako Aurrezki Kutxa honetxek bere 75. urteburuan argitaratua— beste artista baten laguntzaz oratuak, Bizente Cobrerok; eta balio gaitzekoak ere donostiarrentzat. Horietako baten aleak, aberastasun berezia du niretzat; bere lumatxoaz beraz eskainia baita, eta erabili duen marrazkian batera baitoaz margo-gaia eta beronen marrazketaren osotasuna bera.

Agustin Ansa-ren dohainen alor berezia, dena dela, akuarela da; honetan gailentzen baita zalantzarik gabe artista aparta gisa. Beti ere pintzelak eskuartean, gure herria kurritu du, baita mugetatik haraino ere irten. Beti ere bere pleguari itsatsita, teknikak, lerroen xuxentasuna, multzoen harmonia, koloretasunaren aberastasuna eta argitasuna, denak joan dira gero eta gorago; eta horitxek zaizkit ezjakina naizen honi haren bertuterik nabarmenenak. Edozein bistaren aurrean, ikusbegirik ederrena hautatzen du berak berehala; eta kontrargitasunak, zuhaitzak, etxetxoak edo herriak, ostarteak edo basoan barrena iragazten den eguzki-errainuak, bizitasuna erasten dute. Ikusleari irizkeria labainak baztertuz, koadroak ikus-ziztada hutsaren maila gainditzen du; eta zuzenean elkartzen dira begiralea eta artista, zauskadan eta sendimenduak esnaraziz.

Goraipamenik ozenenak merezi ditu AMK-k eskaini digun antologia honek. Artistaren nortasuna zedarritzeaz gain, sorta partikularretan barrena sakabanaturik dagoen obraren irudiak bildu ditu. Artearen lagunarentzat, opari aparta da hori, eta beraren produzioaren lekukotasuna da gaur egungo, eta geroari buruz ere agiri mardula.

Medikuntza Zientziaren eta Artearen arteko ezkonketa izanik, harrotu egiten da Gipuzkoako Medikuen Elkarteak bi izari horiek batera erabili dituzten elkartekideen bidez. Agustin Ansaren profesio-merezimenduak azpimarratuz ere, bere artelanen oroitzapena gorde nahi izan du. Hori dela bide, lehendakariaren bulegoa apaintzen du Ansaren koadro batek. Gipuzkoako bista bat da, udaberriaren margotua; eta han agertzen diren zuhaitz trinkoak eta argiune argitsuek, beti ere harritzen du ikuslea, behin eta berriz aurkitzen baitira bertan alderdi berriak.

Donostia, 1985ko Abenduaren 1an

Ignazio Barriola

Agustin Ansa Muxika

Autobiografi zirriborro gisa.

Donostian jaio zen 1909-ko Irailaren 30an.

Marianistetan egin zituen bere ikasketak, eta 2. mailako institutoan; eta batxilergoa 1925-1926-an amaiturik, akuarelazko bere marrazki apalekin aurkeztu zen Artista Berriantxen Erakusketara, bertan sariztatua izanik. Bizente Cobreros Uranga-ren kritikak dionez, koadro-sail hartan pintura-dohairik ez dago; araeutatik at dago, eta egutegiak apaintzeko baizik ez du balio.

Karrera bat, zein betebeharrerentagarri bat eskatzen dio aitak. Bidarte horretan dagoelarik, Midikuntza ikastea erabaki zuen; eta, handik goitik, marraztea eta akuarela pintatzea inork debeatuko ez ziola. Buruz hori, bai; baina amore emana, halere.

Urte haietan beretan, eta Unibertsitatean sartzeko bere ikasketak hasterakoan, Arteak eta Lanbideak izeneko eskolara joaten zen arrastirietan: zinemazko krokisa (Martiarena), projekzio tinkozko krokisa (Iturrioz), eta imajinagintza (Gargallo); eta hori aitaren baimenaz oraingoan, Aszentsio Martiarenak eta Antonio Gargallok presio eginik. Fakultateko bere ikasketan barrena, Anatomian, Histologian, eta Patologi Anatomian erabili zuen bere marrazkintza; baina baita zabalkunderako marrazkintza ere:

Aquarium-erako Kartela (1929), Artista Berriantxen Erakusketa-rako Kartela (1931), Cementos Rezola-rentzakoa (1932).

1935an Manteo-Eritegian sartu zen Txapelketa-Norgehiagokaz (hilean 83 pezeta soldata). 1939an paisajearekiko bere eskaintza hasi zuen. 1941an, eta oposaketaz, Eritegiko Areto-buru izendatua izan zen. Bere buruzko lehenengo Erakusketa antolatu zuen orduan San Telmo Erakustokian 1942an, koloredun marrazkiak eta akuarelak erakutsiz. Grabakin izateko joerak orduan bere barruan senditu, eta Rikardo Barojak Madrileko Casón deritzon «Calcografía Nacional» era bidali zuen (1).

Akuarelaren Areto Nazionaleko MULTZO-Erakusketetan hartu zuen parte: Madrile, 1945; Bilbo, 1946; Donostia, 1947. Espainia eta Portugalgo akuarelariak, Kanpo Arazoetako Ministeritza, Madrile 1947. Euskal Artisten Bienala, Donostia 1947. San Ignazio Elkartean Euskal Artistak, Donostia 1948. Artistas Españoles, Baiona, 1948 eta 1949. 1946tik aurrera, zenbait hiritako Euskal Akuarelarien Erakusketak, Multzotan. 1946tik aurrera ere, eta 1980ra arte, Gipuzkoako Erakusketa Ibiltari guztietan hartu du parte. Mostro all'aperto. Multzo-erakusketa, Biscaglian, Bari, Italia, 1977. Akuarelarien Aretoa, Etxeberria Aretoan, Donostian, 1978 eta 1982.

Bakarrean antolatutako bere lehenengo erakusketaren ondoren (1942), bere marrazkiak eta akuarelak erakusteari eutsi zion

Orrien azpiko oharrak:

(1) Gau hartako treinean joan nintzen Madriler. Adolfo Rupérez, Nazionaleko Kalografoa, harritu egin zen: nola ote liteke Donostian grabatzaile handi bat izanik, Bizente Cobreros Uranga, nik harengana jotzea? Ez nuen nik buruz buru Don Bizente ezagutzen; eta nire aurkezpena errazteko, hark eskatuak zizkion estanpazioei buruz erantzuna eramateko proposatu zidan. Biharamon goizean Donostiara itzultzean, osagile-konsulta baterako eskabide bat topatu nuen, kanpoan izan nintzen egunean Baro Doktoreak, Don Bizenteren semea zen Karlosen pediatriak egina. Konsulta amaituta, eta goiz hartan bertan Cobrerosi helerazi nion Ruperezen mandatua. Horrela ezagutu genuen elkar, eta horrela sortu zen gero inoiz eten ez ziren adiskidetasuna eta elkarlaguntza iraunkorra.

Donostian: 1946, 47, 48, 49, 52, 54, 59, 61, 63, 65 eta 71an, Aranz Darrás Aretoetan, Udal-Arte Aretoetan, eta Informazio eta Turismokoetan segidan. 1947an bere Erakusketa Aretoa estrainatu zuen CAM-ak Ansaren akuarelez. 1977an, «Expo» delakoan antolatu zuen Donostiako bere azkeneko erakusketa. Txokotik at ere, Madrileko Arte Ederren Minerva Elkartearen erakutsi zituen bere obrak 1956an, eta Eureka Galerian, Madrilan, 1967an; aurretik Bilboko Arte-Aretoa egiten zuelarik, 1947; Ximenez-enean, 1951an, eta Iruñeko CAM-enean, 1963. 1982an, azkenik, Texas-ko De Leon Art Elkartearen.

Berrogeikadan publizitate kartel batzu prestatu zituen, baita Firestone-ren egutegiaren apainketa ere, 1948an eta 1949an; Alfa-renak, 1948 eta 1949an. Eta Cementos Rezolaren Berrogei-ta-hamargarren urteurrenekoak ere, 1950 urtean.

Gipuzkoako Arte-Elkartearen sortzaileetakotzat jotzen du bere burua (2). 1950an Donostia argitaratu zuen («Paseando por la ciudad»). Estiloz egindako 108 marrazki. iruzkinak Bizente Cobreroren Uranga-renak dira. 27 x 21 cm. 156 orrialde. 1954an, Donostia, Donostiako biziera 75 urtetan barrena. Bai apainketa eta bai arte-zuzendaritza. Izkribua B. Cobreroren Uranga-rena. Bere 75. urteurrenaren kariaz, CAM-ak argitaratua. 27 x 21, 110 orrialde.

(2) Baiesperen hau funtsatzera noa; Elkartearen lehenengo urteei buruz albiste erratuak zabaldu izan baitira, are argitaratu ere. Nik jarri nuen lehenengo harria. Baita beste batzue ere. Mea culpa. Halako batez artista plastiko eta intelektualek arteko bilera batera deitu ninduten, Gaviria kafean. Haien artean Jorge Oteiza, Merche Saenz Alonso eta Eugenio Saldaña-z oroitzen naiz (azken hau «Piedra» bere lagunaren artean). Agintek artearen mundua abandonaturik zeukala salatzen zuten, oro har: honetaz jabe araztea nahi zuten, eta arreta bilduta sustaketa eta laguntza inguratu. Elkarte gisa antolatzea proposatu nuen, horretarako profesionalen osatutako elkarte bat sortuz, halako lan-elkargo bat, horretara geure eskaerei indar handiagoa emateko, gertatzekotan bederen. Baina ezer ez zen finkatu. Egitea erraza zela uste nuen, ordea, eta Unión Artesana delakoaren barne-araudia kopia nuen; eta hartan helburu jolas-ongileak aipatzen ziren puntuan, nik arte-ongileak jarri nuen; eta Gobernua aurkeztu nuen hura, Sekretaria zen José María Jaén jaunaren eskuetan. Irakurritakoan, barre-algaraz hasi zen: «Ansa Doktore hau ikaragarria da!». Bere begiraleen bitartez Gaviria-ko bileraren berri bazuela sumatu nuen. Seilua erantsi zuen ale haietako baten gainean, eta eman egin zidan, hau ziolarik: «Horra hor zure Elkarte legezaturik». Javier Saldaña adiskidearengana joan nintzen or-

1970an, Donostia, 45 marrazki eta 10 akuarela, Donostiako gaien inguruan mamituak. Izkribua B. Cobreros Uranga-rena. Arnasazko Patologi III. Biltzarrerako argitaratua. Donostia, 22 x 17, 60 orrialde.

1952an Eguberritako Sariketan (Aranaz Darras-enean) Dario Regoyos Saria jaso zuen. 1953an, berriz, San Telmo Erakustokian, Eguberritako Ohore-Saria.

Eritegian 50 urtez ari izan ondoren, eta Erizaintsen Eskolako Zuzendaria zelarik, jubilazioak iritsi zuen, 1979an. Geroztik aldatu egin du bere akuarela-teknika, kartulina estukatuaren gainean erabili ahal izateko; eta honen bitartez marrazkian bizitasun indartsuagoa bilatzen du, bere margolaritzan malgutasun handiagoa lortuz. Bere hamabost urteetan egindako barne-itun harekiko zintzo egonez, mende erdi batean barrena jokatu zuen osagile gisa, egutegiak apainztatu zituen; eta orain ere, bere biziera guztian bezalaxe, pintzelak soilduz eta pinturaz paperak zirriborrotuz jarraitzen du.

duan, orduan Donostiako Alkate; eta Elkarte sortu-berriarentzat bokalego bat eskatu nion San Telmoren Patronatoaren barruan, eta gauza bera beste arte-elkartetan.

Biltzarre horietako batera deitu ninduten, eta han neure desirak azaldu nituen. Ni neu, pertsona gisa, bokale izendatzea onartu zuten; eta hala idatzi zuten bertako agerian. Jaun haiek ez zuten beren burua gure elkartearen gatik-saldu nahi; baina biltoki bat eman ziguten. Handik piska batera liburutegiak utzitako aretoetan apailatu zigun gaur dugun egoitza Donostiako Udal-Arkitectoaren Luis Jesus Arizmendi zoritxarrekoak. Oraindik ere errari bizi ginenean, Elkartearen ezaugarria den «GAVIOTA» argitara nuen. Idazkari nagusia Bizente Cobreros izan zen. Berak bere luma trebea erabili zuen; eta ni, berriz, inprentako mutila izan nintzen. Horra hor argi eta garbi. (Gertakari hauen jarraiera ezagutu nahi izanez gero, Juan Antonio Garcia Marcos-en «La Asociación Artística de Guipúzcoa» kapitulua ikus, CAM-aren Antologi Sortaren barruan, Aszensio Martiarena-ren Biografian).

GURE SOLASALDIA

Miguel PELAY OROZCO

Otsaileko goiz epel honetan, Prim kaleko 47 zenbaki etxearen atari-parean geratu naizenean, halako unkipen eta nostalgiazko sentsazio batek eraso dit bapatean. Gertatzen da, atalase hau bera orain hurrena gurutzatu nuenean, kontrako zentzuan egin nuela eta hori gertatu zenetik badirela jadanik berrogeitamar urte, gure gerraren hasieratik alegia. Orain, une honetan, urrutiko oroitzapen-zati batzuk datozkit deblauki gainera, eguneratu eta nire adimenean errotu nahiko balute bezala, bertan eduki nitzakeen gainerako kontzeptu, projektu edo ardura guztiak baztertuz edo baita ere **kanpora uxatuz**. Uste dut, neurri batean bederen, nire urduritasun hau justifikatua dagoela. Izan ere, edifizio honetan bertan, behe-oinaren gainean, igaro izan zela pentsatu behar bait da nire haurtzaroaren zati on bat, nire nerabezaro guztia eta nire gaztaroaren parte garrantzitsu bat. Horixe besterik ez. Eta baliteke gaur, mende-erdi bat geroago, etxe honetan garai hartan bizi ziren guztietatik, lekukotasunaren azken aztarna gisa, ni bisitatzera natorren pertsona bakarrik égoitea. Edota elkarrizketatzera, hobeto esateko, zeren eta mandatu horixe eman bait didate eta nik, neure aldetik, asebeteko atseginarekin hartu, ezpairik gabe.

Besoak zabalik hartzen nau Agustin Ansa Mugica-k. Egia esateko, Ameriketatik itzuli nintzenez geroztik, oso gutxi ikusi dugu elkar, nahiz eta biok Donostian bizi garen. Eta orain hurrena bere erakusketa baten kariatz izan zela gogoratu uste dut. Gure bizitzek, inongo zalantzarik gabe, bide desberdinak egin dituzte eta, gaur egun, ez datoz batera ez gure ohiturak, ez lekuak eta ez ibiltzen garen lagunak. Esan liteke, ordea, haurtzaroan eta nerabe-zaroan egindako adiskidetasuneko loturek tinko eusten diotela oraindik, urteen higadura eta guzti, kuttuntasunaren atributu delikatuari. Oroitzapen amankomunek -eta are gehiago aintzina-koak direnean- betirako lotzen dutelako apika.

Prim-eko 47an auzokide izan ginen bitartean, hau da, 36ko uda arte, nahiz eta Agustinek, ni baino hiruzpalau urte zaharragoa izaki, ordurako jadanik bukatua izan karrera, nik ez nekien ezertxo ere bere beste fazeta hartaz, bere bokazio artistikoaz alegia. Eta alderantziz, hark ere nekez izan zezakeen nirearen, literatura-zaletasunaren, berririk, artean oraindik jaiotzeko zegoen eta. Edota, bazegoen beharbada, baina ezkutuko fasean inondik ere...

Denbora-puska batean, gai orokorreki buruz mintzatu gara Agustin Ansa eta biok. Gure eginkizunari ekiteko argi berde bezala interpreta genezakeen bezainbateko pausaldi luze bat gertatzean, berarekin tratatu nahi nituzkeen gaiez zirriborrraturiko orritxo batzuk ateratzen ditut neure faltrikatik eta berari luza-tzen dizkiot.

— Begiratu bat emaiozu galdesorta honi -diotsat.

Ansak, nire oharrak halako gainbegiratu azkar batekin errepasatu ondoren, berriro itzuli egiten dizkit orritxoak, esanez:

— Beno; hasiko gara, zuk nahi duzunean.

Behin konbentzionalismoetatik aske, bada, sakramentuzkotzat eman ohi den galdera batekin ekiten diot lanbideari:

— Nola sortu zen zuregan Pinturarako zaletasuna?

— Berezkoa dela uste dut.

— Bazen aurrerakin familiarren bat, zure zaletasun hori bultzatza zezakeenik?

— Ezta batere.

Segituan ohartzen naiz Ansaren erantzunak berehalakoak eta ebatzaileak izango direla.

— Etxean -jarraitzen dut galdetuz-, aurkitu al zenuen laguntza moralik Artearen abenturan murgiltzeko, ala karrera ikastera eta soilik bertara dedikatzerako presionatu zizuten?

— Bai -dio, bapatean-. Egon zen presiorik karrera ikas nezan.

— Nik sinesten dut «bi ofizioen» birtualtasun aberastailan. Izan ere gure profesioan, **second métier** osagarri hori egiten dutenen kopurua agortezinezkoa bait da. Ez du merezi guzti horien zerrenda zehatz bat ematerik, baina, horrela axaletik begiratuta, Axel Munthe-rengandik Maraño-enganaino, Conan Doyle-rengandik Barojarenganaino, «Planeta» saria irabazi berria duen Vallejo-Nágera honengandik Oteiza-renganaino (aurrena Medikuntza ikasi bait zuen honek, gero eskultura eta ideien literatura batera lantzeko), gizon ospetsuen legio oso bat dago hasiera batean Medikuntzarekin erlazionatu eta gero iharduera profesionalei uztartu zitzaizkienena. Zer diozu zuk guzti horretaz?

— Bazutela beste bokazio bat; gero mediku egin zirela eta ez zutela hura abandonatu nahi izan -erantzuten du biziki.

Pausalditxo bat sortzen da. Gero, ni naiz ekiten diodana:

— Noski, interesgarria izango litzateke, kasu askotan, jakitea zein den benetan profesioa eta zein bokazioa. Ideala, zalan-tzarik gabe, joerak deituko genituzkeen bi horien bipolarizazioan, bion baliokidetasun doi-doi batean datzake. Eta zure kasuan, bai mediku eta bai pintore bezala gailendu zaren horrenean, zein izan zela esango zenuke zuk zure benetako «profesioa» (eta komatxo artean jartzen dut hitza, ez nuke eta bere errendimendu ekonomikoa esan nahi) eta zein zure bokazioa?

Ez du beta handirik behar nire galderari erantzuteko:

— Nire bokazioa da, dibujoa eta pintura.

Isiltasun berri bat sortzen da. Biok zigarrotxo bana pizten dugu. Eta tartetxo bati igarotzen uzten diot jarraitzen hasi aurretik. Azkenean, berriro nire oharretara begiratu eta arazo berri bat planteatzen diot.

— Ondo-ondo. Bidezkoa den bezala, hemen ez gara arituko mediku bezala izan duzun curriculum-ari buruz; izena eman dizun beste fazetari, pintorearenari, buruz baizik. Hitzegidazu ofizioan eman zenituen zure lehen pausoez, norekin edo nortzuekin ikasi zenuen, etab...

— Dibujoko ikastaro bat, gaueskolaz, Arte eta Ofizioetan, 1926an -erantzuten du azkar asko.

— Literaturan -jarraitzen dut-, gainerako arte-arloetan gertatuko dela pentsatzen dudana bezala, eraginak, influentziak, daude. Jeneralean, nerabe bat idazten hasten denean, miresten du jadanik idazle kontsagaturen bat eta hura imitatzen saiatzen da. Denborarekin, eragin horiek indarra galduz doaz eta estilo propio bat dekantatuz amaitzen da. Nik galdetuko nizuke orain, zein izan ziren zure influentziak, influentziarik eman bazen...

Ez da luzatzen oraingoan ere bere erantzunean:

— «Blanco y Negro»n eta «The Studio» arte-aldizkarian erreproduzitutako dibujanteak eta pintoreak, umetan. Gero, museoak...

— Noiz eta non egin zenuen zure lehen erakusketa?

— Artista Berrien erakusketan, 1925ean.

Aire ia telegrafiko bat dute nire lagunaren erantzunek. Ideia argiko gizona da eta beroriek azkar eta doitasunarekin erantzutea gustatzen zaio.

Behin berriz nire oharretara begiratu eta aurrera jarraitzen dut:

— Pentsatzen dut, oraindik egiteko dagoen pintore bati, bere lehen erakusketak, lehen, esan dezagun jendearekiko kontaktuak, idazle batek bere lehen liburua kaleratzean sentitzen duen unkipenaren antzeko zerbait sortuko diola...

Lehen aldia da erantzun aurretik instant bat geratu egiten dela. Eta jarraitzen du:

— Han, oleo haien artean, **diferente** aurkitu nintzen. Eta horrek bere eragina izan zuen, nire ikasketekin batera, nire ondorengo akuarelarako dedikazioan.

— Tristurarik ematen al dizu zure gustokoa den koadroren bat «utzi» behar izateak?

Agustin begira-begira jartzen zait une batez eta berehala erantzuten:

— Askotan. Baina kontsolatu egiten zaitu oraindik hobetu dezakezula pentsatzeak. Hurrengoa askoz hobea izango dela...

Barre egiten dugu biok.

— Zure lehen etapatik -jarraitzen dut itxoinaldi labur baten ondoren-, 20ko hamarkadaren azkenetatik gerrara bitartean, zein

obra gogoratzen dituzu zuretzat garrantzitsuenak edo, behintzat, esanguratsuenak bezala?

— Kartelak dira esanguratsuenak.

— Eboluzio asko izan al dituzu zure karreran zehar? - galdetzen diot, bapatean-. Zure pintura kontzebitzeko eran eta teknikan esan nahi dut...

— Kontzeptua, bera izan da beti -dio-. Dibujoan, aintzina-aintzinako txotxetara eta tinta txinatarrerako itzulera. Akuarelan, berorren aplikazioa kartulina iztukatuan, tina-paperaren oreka egiteko trapuetan nylonaren presentzia ematen zelako, horrela akuarelistarentzat zituen kalitateak galduz...

Pausaldi berri bat. Berriro zigarrotxo bana pizten dugu bion ala biok. Beste begiratutxo bat nire orriei. Eta berehala beste arazo bati ekiten diot:

— Ikus dezagun: gauza ez da zure pintore-curriculum-ean gehiegi luzatzea, zeren eta nolabait adierazia agertzen-bait da liburu honetan bertan ematen den autobiografia sintetiko horretan. Zure ibilbide artistikoa aztertu ordez, bada (egiteko hori, bestalde, ezin hobeto bete bait du Joaquin Iturbidek, eta gaiari buruz nik ekar nitzakeen baino askoz ere ezagutza handiagoe-kin gainera), galdera bat egingo dizut. Tramite soilekotzat eman ohi den eta, hala ere, nire ustez artista batentzat beti konprometitua gertatu ohi den galdera bat. Nola definituko zenuke zure pintura?

Agustinek, gogoeta llabur baten ondoren, behingoan erantzuten du:

— Naturaren kontenplazioak sortutako unkipena plasmatu beharri erantzun bat bezala. Lainoarekin, zuhaitzaren zilue-tarekin, argiaren efektuarekin, gizakien lanekin, barku, orga, zu-

biekin... adiskide-solasean ihardutea. Eta ahal duzun ongien egi-
tea, gaiaren zailtasunekin mordoilatuz...

Lehen aldia da asaldurarekin mintzatzen dela, eta horrek egin
diodan galdera egiteagatik pozik sentierazten nau. Isilunea. Eta
segituan nire lanarekin jarraitzen dut:

— Orain kolektiboak gure artean dauden egunotan -honako
Taldea dela eta halako Mugimendua dela-, gogoratu behar da
nola 40ko urteak aldera izaera artistikodun entitate bat sortu zen
Bilbon, «Suitzarraren Taldea» izenarekin ezagutua. Eta ia aldi
berean, beste bat, Euskal Akuarelisten Taldea deitu izan zitzaio-
na. Izan al zinen zu Bilbon sortu zen akuarelisten talde horreta-
ko partaide?

— Bai -erantzuten du-. 1943 aldera. Askotan egin nituen ho-
riekin batera eta Espainiako hiri desberdinetan, erakusketak,
hainbat urtetan zehar.

— Taldeei buruz ari garenez gero -jarraitzen dut nire oha-
rrei beste zelatatxo bat egin ondoren-, ezin utz daiteke alde ba-
tera gerra aurreko Euskal Artisten Elkarte famatu hura, Bilbon
fundatua hau ere, eta oso jende inportantea bildu zuena, hala
nola: Arteta, Regoyos, Juan Echevarria, Zubiaurretarrak, Iturri-
no, Maeztu, Tellaeché, Arrue anaiak, Martiarena, etab., pinto-
reen artean. Eta eskultoreen artean, berriz, Quintín de Torre, Mo-
grovejo, Huerta, Mateo Inurria... Elkarte hartan joera eta egiteko
modu desberdinak zeuden presente. Gaur egun sortzen diren ko-
lektiboetan, aldiz, badirudi errepresentatzen dituzten korronteak
homogenoagoak direla eta, pixka bat estutzen banaute, esango
nuke, zeinu gutxi-asko politiko edo ideologikozko bulkada ko-
mun batek mugituak direla, gainera. Zer diozu zuk guzti
honetaz?

— Uste dut, artista, pertsonalagoa eta independenteagoa zela
lehen -jaulkitzen du pentsakor-. Orain apika, propagandaren, za-

balkundearen eta ezagupenaren ondorioz, pintore gehiago egongo dira eta, beraz, taldekoi ere gehiago.

— Hain eztabaidatua izan den eta den euskal arte-eskola bati buruz, zer pentsatzen duzu zuk? Badago? Egon izan da? Kome-nigarri litzateko egon dadin?...

— Pintore haien idiosinkrasiarengatik, ez dut uste egokia denik «eskola» hitza. Taldekatu behar baldin badira, amankomunean dutenaren arabera kalifikatuz izango da...

Eten egin du une batean eta nik errespetatu egiten dut bere isiltasuna, oraindik zerbait eranstekorik ba ote duen edo. Baina, pausaldia luze doala ikustean, nik neuk haustea erabakitzen dut:

— Badakit zure karrera artistikoan zehar abagadune desberdinetan saritua izan zarela. Zein izan da lortutako sarien artetik atsegin handiena eman izan dizuna, eta zergatik?

Agustin Ansa begira jartzen zait une batez. Gero dio:

— Gabonetako Lehiaketako Ohorezko Saria, agian; akuarela San Telmo Museoan bait dago. Eta horrela, badut panteoia...

Biok barre egiten dugu bere ateraldiarekin.

— Hain zuzen ere -jarraitzen dut-, zer deritzozu sariei buruz? Balio dute akuilu edo bixigarri bezala, ala kaltegarri gertatzen dira azkenean?

Irriño bat ebakitzen zaio gure pintoreari.

— Kontxo, ondo ordainduak baldin badaude... inor ez du mingosten goxoki batek. Baina ez naiz anbizioso alde horretatik -dio, berriro seriotasunera itzuliz.

Etenaldi bat dago atzera. Eta behin berriz neu naiz hausten duena, oster a nire oharrak kontsultatu ondoren:

— Badago beste sari-mota bat, dudarik gabe, orain esaten den bezala, «gratifikanteagoa» izan behar duena. Aurreko egun batean entzuten nuen irrati-emankizun batean, nola Rodríguez Catalán akuarelistak zioen bere bokazioa zure akuarelak kontentplatus sortu zela. Gogotik ihardun zuen Ansa doktorearen (horrelaxe mintzaten zen irrati bidezko elkarrizketa zure izena aipatzean) akuarela eta dibujoei buruz. Horrelako pasadizo bategen askoz ere atseginagoa izan behar duela uste dut artista barentzat, eman liezaizkioketen sari ofizial asko baino. Entzun al zenuen esaten dizudan irratsaioa, edo kontatu dizu jadanik beste norbaitek?

— Halaxe da, benetan gauza atsegina gertatzen da zure lanak besteengan lana estimulatu duela sentitzea. Ez nuen entzun, ez oso, gorra nagoelako eta ezin bait diet irratsaioei jarraitu, baina banuen horren berririk eta nire eskerrak ematen dizkiot hemendik Rodríguez Catalán-i bere laudorioarengatik, estimulu bat da eta niretzako. Zera gogoratzen dit honek: nik erakusketa gehien egiten nituen garaian, mediku donostiar talde handi bat pintatzen hasi zen, eta erakusketa kolektibo bat ere egin zuten, gainera. Baina hark ez ninduen asko estimulatu -dio, barrez.

— Ongi da. Jarrai dezagun aurrera. Gure artean eta pinturari dagokionez, Ipar/Hegoa dikotomia gisako bat eman izan da beti. Zentzu honetan, mende honen hastapenetan eman zen debata gogoratu behar da: Sorolla alde batetik, argizaleatasunaren eta hegozaleatasunaren esponenterik handiena bezala, Mediterraneo goraipatuz eta Euskal Herrian pintatzeko adina argirik ez zegoela esanez; eta bestetik, Baroja, talentu kritiko handiko gizona, iparzalea eta tonu grisen eta ñabarduren aldekoa, Belgikan eta Holandan hemen baino argi gehiago ez zegoela baina hala ere herrialde horietan paisajista ospetsuak eman zirela ar-

gumentatuz. Zer diozu zuk ezadostasun horretaz? Non kokatu-ko zinateke zu?

— Gartsuak zirela bi-biak, don Joaquin pikniko mediterraneanra eta nire ikaskide don Pio, bere letxe txarrarekin. Biak miresten ditut -dio Ansak, irribarrez-, baina ez ziren Herbeheretako laranjak edo bola-gazta valentziarrak, defendatu behar zirenak. Apalki ausartuko nintzateke hirugarren bezala jartzera, nire errespeturik handienarekin esateko: zorioneko lainoak.

Elkarri ia batera zigarrotxo bana eskaintzen diogu. Solasaldi honetako azkenekoa izango da.

— Ondo iruditzen bazaizu -diotsot orain, kea gogotik hatsartuz-, galdera batzuk egingo dizkizut gure pintoreei buruz, gaur egun esaten den bezala, «punpa-lasterrean» erantzun diezaiezun. Ados?

— Ez, ez -dio bizi-oro-. Horietako asko miresten ditudalako, nahiago dut ez puntualizatzea.

— Ongi da. Utz ditzagun orduan euskal pintoreak. Unibertsaletatik, ordea, gustatuko litzaidake zure gustokoenetako batzuk seinalatuko bazenizkit, aintzinakoetatik eta modernoetatik.

— Altamirako kobazuloetako pintorea eta izan diren gainetako guztiak, inolako aldi-, arraza- eta era-bereizketarik gabe erantzuten dit, konpromisutik jareinez.

Pausalditxo baten ondoren, begiratzen dut berriro nire oharretara eta galdera berri bat egiten diot:

— Zer eritzi merezi dute zuretzat «ismo»ek Pinturaren arloan?

— Hainbestearinoxe dira, izan, ze atomizatzen ari direla Pintura. Azkenean «hiroshimizatua» geratuko da hau -ondoriotzen du barrez.

Denboralditxo bat pasatzen uzten dut hurrengo puntura pasa aurretik.

— Hain zuzen ere -ahoskatzen dut azkenean-, lehenago, axaletik bada ere, «euskal eskola artean» gaia ukitu dugu. Baina, Pintura, Arkitektura, Literatura eta abar bezalako gai inportanteak izan litezkeenak alde batera utziz, gertatzen da, azken urteotako jendearen atentzio orokorra -eta honekin, leinuaren esleipena- gure Herrian, eta batez ere Gipuzkoan, sortu den abangoardiako eskultore-talde garrantzitsuaren inguruan bildu dela, Oteiza, Chillida, Basterrechea, Mendiburu, Ugarte, etab.ekin. Bartzuen ustez, ematen da hemen «eskola» delako hori. Bestek ukatu egiten dute. Ikuspuntu semantiko batetik, bi posturak defendagarriak izango lirateke. Aurka daudenek aski lukete Hizkuntz Akademiaren Hiztegian sartu diren azepzio-pareari heldzearekin: «Autore baten doktrina, printzipioak eta sistema», edo: «Pertsona baten edota honen doktrina, arte, etab. en diszipulu, jarraile edo imitatzaileen taldea». Alde daudenak, beren aldetik, honako azepzio honetan bermatuko lirateke: «Literaturan eta artean garai, erlijio, etab. bateko gainerako obretatik bereizten duten ezaugarri amankomunen multzoa». Zer deritzozu guzti honi? Badago ala ez dago gure eskultore hauen erabideak eta estiloak nolabait bateratzen dituen lokarri bat?

Laburtasun harrigarri batekin erantzuten dit nire solaskideak:

— Uste dut, izendatzaile komuna, beren iharduerak egikaritzen dituzten aldia dela.

Ia arnas hartzeko betarik eman gabe, aurrera jarraitzen dut nire galdesortarekin:

— Beno. Iruditzen zait gure elkarrizketa honetan zehar jadanik Pinturari eta honen jarraitzaileei buruz dituzun jite eta ikuspuntu asko geldituko zirela erregistratuak. Alabaina, nik

pentsatzen dudan bezala pentsatuta, pertsona bat ongien definitzen dutenak bere eritziak, joerak eta gustoak direla, beste arlo kultural eta artistikotara hedatu nahi nuke pixka bat nire azterketa, zure profil gizatarra eta intelektuala osatzen saiatzeko. Begira: medikuok, ia definizioz, zaletasun handia duzue irakurtzeko. Gustatuko litzaidake jakitea zein literatur genero izan diren urteetan zehar gehien erakarri izan zaituztenak: nobela, saiakera, historia, biografia, poesia...

— Saiakera, historia, biografia, bidaiak, teknika.

Isiltasun berri bat orain ere.

— Euskal idazleetatik -galdetzen dut, azkenik-, zein dira zure gustokoenak eta zergatik?

— Jose Arteche eta «Dunixi» -erantzuten du bapatean-. Gaia-
ren izaerarengatik eta horiek irakurtzeak xalotasun eta kuttun-
tasuneko sentsazio bat ematen didalako, koalitate horiexekin sen-
titzen naiz eta identifikatua.

— Seinala iezadazu euskal autore baten edo gehiagoren no-
bela garrantzitsu bat edo batzuk...

— Ez da nobela, nire irakur-arlo gustokoena.

— Idazle espainiar edo atzerritarren artetik, aipa iezazkida-
zu entusiasmatu zaituzten batzuk.

— Ezinezkoa, inola ere -esaten dit-. Hainbestearinoxe dira,
ze senton bat egin beharko bait nuke. Dira, izkina batean, Hita-
ko Artzapeza, eta bestean, Indro Montanelli; erdialdera Cervan-
tesen Sancho eta Dickens-en Sam Weller egongo lirarteke. Eta hur-
bil, Montaigne; hitzegingo dugu honetaz abagune hobe batean,
nire letra inprimatuarenganako gose amorratuarekin.

Euskal poeta baten izena. Edo bi edo hirurena, noski...

— Ezin diot erantzun galdera horri ere -desenkusatzen da. Hiru puntu ahul ditut: poesia, politika eta diplomazia. Beno, agian badituzte gehiago ere...

— Poeta espainiar baten izena.

— Quevedo.

— Poeta unibertsal baten izena.

— Quevedo.

— Badago euskalduna bezala kataloga daitekeen musika bat?

— Badagoela uste dut.

— Euskal musikari onenak, zure gustorako?...

— XVIII. mendeko fraileak, Aita Etxeberria, Aita Lonbide, eta XX.ekoak, Aita Donostia, besteren artean...

Isiltasuna berriro. Halako batean, gaiak aldatzea bururatzeko zait.

— Aizu, inoiz interesatu al zaizu zinematografia? -aurpegiratzen diot.

Nire solaskidea begira jartzen zait instant batean, harrিতa bezala.

— Ez -dio, segituan-. Irudiak eta egoerak masarentzat komertzializatzen dituen industria bat kontsideratzen dudalako. Objektiboaren magoak eta hauen irudiak bakarrik hartzen dituzte kontutan.

— Urtetan zehar inpresionatu izan zaituzten pelikula-pare bat...

— Cousteau-ren bat eta Rodríguez de la Fuente-ren beste bat.

Oraindik gehiago sakondu nahi dut zinemaren arlo honetan, galdera gehigarri batekin:

— Zuzendari edo interpretari inportanteen izen batzuk...

— Ezezagunak dira niretzat -erantzuten du Ansak, lakonikoki.

Tartegune luze samar bat igarotzen da hurrengo galdera egin aurretik. Eta hau da:

— Bisitatu izan dituzun herrialdeetatik, zein dira gehien gustatu zaizkizunak, eta zergatik?

— Denetan aurkitu izan ditut alde onak eta ez hain onak.

— Eta hirien artean, zeinek inpresionatu zaituzte gehien?

— Txikiak: Toledo, Santiago, Hondarribia, Albarracín...

— Azken galdera bat. Nik uste, euskal pintore ororengan (eta are gehiago pintore paisajista baldin bada) batera bizi dira ekologista eta gure ingurunea, gure habitata, narriatzearen etsaia. Inori ere ez zaio ezkututzen adjektibo horrek azken urte hauetan konnotazio nolabait urrunduak eta, dena den, artista baten sentikortasun irainduari aplikatu legezkokeenetatik bestelakoak «hartu» dituela, nolabait esateko. Honekin ez dut esan nahi ekologista kalezaleen helburuen edo prozeduren kontra nagoenik. Azpimarratu nahi dudana da, gure paisajista bat, gure Gipuzkoa minberatu honen mendi, ibai, belaze eta ibaiek jasan dituzten sarraski makurren aparteko testigu bat dela. Gure paisajista bat, duela zeinbait urte -baina oraindik gehiegi gabe (eta horixe da minik handiena ematen duena)- haritz- edo pago-baso bat plasmatu zuen lekuan gaur egun -horretarako umorerik sentituko balu (probabilitate gutxiko gauza benetan)- gure paisaia belztu, uniformatu eta zatartzen duten kordarekin landatutako pinuzerrenda amaigabeak pintatu beharko lituzkeela fede eman de-

zakeen notari bat dugu. Zure azken iruzkin bat nahi nuke puntu honi buruz.

— Begira, Miguel: Gogoratzen naiz, orain dela ez dakit zenbat urte, **ondoak** eta **goringoak** aurkitzen nituela kamino-bazterrean, arekan bertan, haritz azpian. Gaur, ordea, eresiak eta requiem-ak erregutzen dizkiet poetei ibaiarentzat, belazearentzat, zuhaitzarentzat, txoriñoarentzat...

Agustin Ansari irribarre triste batetik jaulki zaizkio hitz horiek, gero -irribarre- berehalaxe itzaltzeko...

* * *

Gure solasaldia amaitu dugu eta nire lan-tresnak biltzen hasten naiz: nahitaezko betaurrekoak, koartila-sorta, boligrafoa eta magnetofonia (kasu honetan ezertarako ere erabili ez dudana). Gure elkarrizketa zentratu duen mahaitik altxatzean, paretatik zintzilik dauden bere koadro-pare bat komentatzen dizkit Agustin Ansak. Gaiak nolabait ere antzekoak dira. Bat zuhaitzekiko paisaia da. Hau da, pinturako konstanteetako bat. Bestea, txarro soil bat loreekin. Azkenaldion loreak pintatzea irrikatzen duela aitortzen dit eta zein teknikarekin plasmutzen ari den esplikatzeko hasten zait. Bere esplikazioetan jartzen duen sugarrarengatik, gizon honek azkenegatik pintatuko duela ohartematen dut. Eta esan egiten diot gainera. Eta gaineratzen diot, batzuk «hirugarren adina» bezalako eufemismo hain kurtsi horrekin kalifikatzen saiatzen diren bizitzako etapa honetara iritsi diren -garen- eta han urrutiko egun lauso batean erditu zuten bokazioa bizirik eta tinko mantentzen duten pertsonak benetan zorionekoak direla. Beren izateko gogo suhar eta pizgarriak bizitza osoan zehar lagundu izan dien eta tinko, hau da, sasoiari mantendu dituen pertsonak alegia.

Igogailuraino laguntzen dit Agustin Ansak. Kabinako atea irekitzean, bostekoa jotzen dugu halako atzera-begirako lasoaldi batean.

— Ikusi arte, Miguel -agurtzen nau.

— Adio, Agustin. Ikusi arte...

Donostia, 1986ko otsaila

Agustin Ansa, osagile-artista edo artista-osagilea.

Kristo aurreko VI. eta V. mendeetan jaio zen medikuntza teknikoa; medikuntza hipokratikoa ere deitua. Unean uneko medikuntzaren aurka, eta medikuntza magikoaren aurka ere bai, gaisoaren aurrean jokatzeko modu berri bat sortu zen. Physia hartzen da abiaburutzat, natura alegia, honek beregan biltzen baititu bai gauza bakoitzaren izana eta bai gauza guztiena. Denen atzean dagoen izaki hori, greziar ikusmolde filosofikoan erabat funtsezkoa, errealitate orokorra da, bere buruan dauka oinarria. Gizonagandik urrun xamar izanik ere, nolabait bederen ezaugarri zaigu; eta ezaguera horrek errealitate osoa biltzen ez badu ere, funtsezko legeak behintzat aurkitzen ahal dira. Nolanahikoak ez diren lege horien bidez, eta mudagarriak ez izanik, gizonak zuzendu egin dezake nolabait errealitate hori. Horixe egiten du «tekhné» delakoak; erromatarrek «ars» (arte) bataiatu zuten berberak. Berorren bidez, naturaren ezagutza lortzen du gizonak, eta, zenbait aldiz, hobekitu, are ordezkatu ere, egin dezake. Horrela sortu zen teknika, artea; alegia, naturaren alorrean jokatzeko modu berezia. Hori dela-ta, eria sendatzea, arte zitzaien greziarrei eta erromatarrei, herria gidatzea arte ere bai; eta arte-motak, era berean, ontzi bat zuzentzea, bertso batzu idaztea, fresko bat margotzea edo imajina bat dailatzea. Teknikaren kontzeptu hori zehaztu zuen Aristotelesek: «naturak egin ezin dezakeena obratzen du «tekhné» delakoak, edo-ta natura idurikatzen du». Zenbait arte-motatan irudiketa da ekintza nagusia; medikuntzan,

adibidez, naturak ziplo bideratzen duena artoski bururatzen baitu. Sorkuntza-lana nagusi den arteetan, berriz, arte berritzaileak dira; etxegintza, esate baterako, etxeak eraiki erazten baititu Arkitekturak; alegia, naturak berak egiten ez duena. Arte hitza, horretara, hitz aberatsa da; eta gaur ere badu horrelako zerbait, arrantzaren arteaz, eman dezagun, mintzo garenean.

Osagilea, hitz batez, artista da; beren aldetik utzirik, sekula sendatuko ez liratekeen eriak sendatzen baititu. Harrigarria da, halaz ere, gaztelania zaharrez osagileari tekniko deitzea; «fisi-karia» esaten zaio. Honetan garbikiago ageri da nola jokatzeko duen, naturaren alorrean ari da-ta.

Aristoteles-en iritzia, ordea, osagileak badu naturaren izari berritzailea; eta alderdi horretatik guk Arte Ederrak deitu ohi ditugun horietarantz hurbiltzen gaitu. Ideia horren arauera, hitzaren funtsean, osagilea eta artista ez dira, izan, bi errealitate desberdin, noiztenka baizik ez batera pertsona berarengan elkartuak. Errealitate berberaren bi aurpegi baizik ez dira, beharrian sakon berberaren bi izari. Horregatik ez ditugu Agustin An-sarengan osagilea eta artista berezi nahi, ezin genezake egin gainera; pertsona bakar hori, hain zuzen ere, pertsona hori delako, batera baita bai osagile eta bai artista ere.

Bi errealitate horiek berezteko tentazioa, halaz ere, azkarra da oso, eta halakoa izan da lehen ere. Gutxi ezagutzen den artiku-lu batean («La doble vocación») ideia horren oihartzunak eman zituen Marañón Doktoreak. Barne-dei bikoitz hori, osagile eta artista deia, edo-ta osagile eta literatur deia, automatismoaren kontrako gerizabidea da. Haren argudioak argiak dira. Oinarria honetan datza: «profesio bati loturik bizi diren gizon argiek, jo-kabehar kolore bakar hori nolabait berdintzeko joera dute: prak-tika publikoaren bitartez, edo beste ekintza-motan lantze izku-tuarenaz». Jokabide horren oinarria ezin izan daiteke sakonagoa:

«Gure txartel ofizialak adierazten duena baino joera-mordo zabalagoa da gurea. Desirak eta barne-deiak gehiago dira hori baino... eta horretxek bultzatzen gaitu ogiberako balio ez duten ekintzak isilean lantzeraz... Horren bidez jolasketaren beharrari eusten diogu nola-hala, eta hori bere adiera hertsian ulertuta, alegia, eguneroko betebeharrak ofizialetatik datorkigun higuina gainditzeko. Horrela, beraz, hein batez bederen, beste bidetara desbideratzen ditugu geure arreta batzu. Profesiorik maitatuenak berak, errotik senditua denak ere, gure joerekin ahalik eta ongienik lotzen denak ere, automatiko jokarazten gaituzte, giroarekiko lotura ugalkorra galtzen dute azkenean; eta, azken buruan, mekanisko erraz bihurtzen dira, eta jokabide temoso eta falsu». Azkeneko moldeetan zeruraino heltzen da «egieran eta ederraren sorkuntza hori; eta honetxek hurbiltzen gaitu ongienik Jainkoagandik. Ibilbide bakarretik libratzen gaitu, ekintza isokronoetatik askatzen gaitu, norabide desberdin eta ustegabe-koetan abiarazten gaituelarik».

Badirudi, beraz, bi barne-deiak berdinzkutzen dituen idazpurua hor egonik ere, dardar dabilela; eta beste barne-dei horren sustrai sakonari buruz xuxen jotzen badu ere, izari osatzaille edo ordezkatzaille hori baztertu ezinean ari dela.

Ordezkaritza-itxuri horrek halako mementoan mementoko itxura erasten dio dei artistikoari; baita halako axalkeria eta falsukeri kutsua ere. Asko dira benetako artistak, artea bizi-bizian artea senditzen dutenak, maitasunez eta oinazez; beren artegintzan erraietaraino dardaritzen direnak. Eta halaz ere, afizionatu axalekotzat baizik hartuak ez direnak. Frantses jatorriko izendapen hori, «igandeko pintoreak», aisegi hedatzen zaie denei; eta margolaritzaz bizi ez diren guztiei buruz esan ohi da, erdeinuz, eta mingarri. Laudorio handiak egiten dira halako batez beren progesioa erabat utzi izan dutenen alde, artegintzari osoki eskaintzeko. Eta halaxe azpimarratzen da biografietan eta kata-

logoetan. Burri, italiar pintore handia, osagilea izan zen; eta 29 urteak bete arte ibili zen medikuntzan. Texas-en preso, margotzen hasi zen; eta hortik aurrera osoki jalki zen margolaritzara. Ez digute azaltzen, ordea, nolako trauma izan zitzaizkion gerla eta kontzentrazio-landa bere baloreen multzoan. Ez zuen mediku gisa lan egin; baina zapiz, zaku puska zarpailez eta adabakiz oratutako koadroak dira kanpainako medikuntzaren adierazpena, berau lokatzen eta heriosuan obratzen denean, uniformeak urraturik eta gizonak minak eta heriotzak deseginak direnean. Etendura, beraz, ez da gauza garbia; ez baitira bi biziera desberdin, edo loturarik gabeak, edo denbora jarraitasunik gabeak.

Guk beste aurrera-pausu bat egiten dugu. Eta hau uste dugu: bi lanbideok, profesioari lotutakoa eta artelanezkoa, benetako profesioak direla, hitz hau bere adiera ia sakratuan hartuz. Pertsonaren bihotzondoraino hel dadin, ez da beharrezkoa margolaritza edo literatura bizibide izatea; hori gabe ere borroka, drama eta arazo bihur daitezten. Pertsonak dena arriskatzen duen egoera horretan, bigarren mailakoa da beste ogibiderik egotea ala ez egotea. Zinez senditzen eta bizitzen den artelana, ez da nahi-tazkoa denbora osoan barrena mamitzea; ezta bizi-indar guztiak horretara edo luzaz ematea. Ez dago pertsonarik, arte-profesiokorik, nahiz arte-profesioko gehi beste zerbaitetan ari denik, bere bizi-indarrak oro sorkuntza-lanetan ari denik. Sorkuntza-lanak badu beti halako kutsu berezia, iheskortasunez eginik. Goi-etorria deitzen dugun horrek beti du igarokor-kutsu bat. Hegaz bide dator, eta hegaz joaten; usterik gutxienean heldu, eta beti ere erne eta prest ez egotekotan, alferrik dira ahalegin guztiak.

Artearekiko dedikazio osoa ez da etorriaren segurtamena, eta ez du lanarekiko atsegintasuna uzten. Marañón haratago heldu zen: «Are ekintza sortzaileak berak ere, badu beti halako kutsu hunkigarrik eta ustekabekorik, eta azkenean oharkabean ger-

tatu ohi da. Poeta, pintorea, idorotzailea, ohitu egiten dira etorriarekiko; eta aspertu ere egiten dira. Lantegi-langilea beti ere pieza bera jasotzen duenean, beti bera, eta beti puntu berean paratu beharrekoa, aspertu egiten den bezala».

